



Mozioa: 2024ko martxoaren 8a

Zaintzen krisi batean murgilduta gaudela dioten ahotsak aspalditik datoz, eta toki ezberdinetatik. Baina ez dira atzokoak krisi honi erantzun nahi dioten mugimendu eta ekimenak. Hala ere nabarmendu nahi dugu, pasa den Azaroan, Zaintza Sistema Publiko Komunitarioa ardatz, Euskal Herrian, Greba Feminista Orokorra aitzindaria izan dugula. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eusteko apustua egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan. Diskurtso hutsaletatik, elkarlanerako eta sistema publikoaren defentsarako bideak ezarri eta eraikitzeke garaia da. Gure herrian ere lanketa sakona egin genuen eta bi dimentsiotan ardazu ziren aldarrikapenak. Alde batetik eremu pribatuan, emakumeek familia eremuan bereziki egindako lan ordaindugabea ikusaraziz eta bestetik feminizatutako eremuetan egindako lan ordaindu prekariora salatuz.

Argi geratu zen herritar guztien bizitzek ez dutela berdin balio gure herrietan, eta emakumeen gainean erortzen dela zaintzaren lan karga gehiena. Honek dakarren ondorioetako bat, feminismoetatik izendatutako lanaldi bikoitz edo hirukoitzak dira, beste gauza batzuetan emakumeei haien denbora eskaintzeko aukera kenduz, izan lan ordaindua, militantzia politiko soziala etab. Hau da, boterea zentzu zabalean eta gaitasun politikoak sortzen dituzten alor horietan guztietan egoteko aukera murrizten zaie emakumeei. Honen eraginez, denboraren banaketa desparekoak gertatzen jarraitzen dute eta emakumeek zaintzen ematen duten denbora horretan lan hauetatik ardurarik hartzen ez duten gizonek boterea metatzen jarraitzen dute.

Egoera honen kontziente izan behar dugu eta horri erantzungo dioten politika publikoek emakumeek boteretzera ere eramán beharko lukete. Horretarako ezinbestekoa da Gobernantza Feminista aurrera eramatea. Gobernantza Feminista berdintasun politiketan historikoki kokatua izan da, Berdintasun Planen zutoinetako bat bezala eta honi Gobernu Ona esan zaio. Egiteko moduei, egiten denari baina gehiago begiratzean

datza. Demokratizazio prozesu bat da oro har, lehentasunak definitzeko beste begirada bat; jarduteko eta lan egiteko prozeduretan aldaketa. Gobernantza feministari buruz ari garenean lidergo partekatu eta transformatzaile bati buruz ari gara eta beharrezkoa da ikuspegi feminista txertatzea aurrera eraman nahi dugun prozesu subiranistan.

Garrantzia eman behar diogu publiko eta komunitarioaren arteko harremanei, elkarrekin sortzen diren bidegurutze berri eta ardua partekatuei. Ezin dugu ahaztu komunitatea ez dela norbanakoen batuketa soil bat, lurralde batean bizi diren eta menderakuntza sistemak sortzen dituzten eta bizi dituzten izaki taldeen multzoa baizik. Komuna kudeatzeko erantzun-kidetasuna behar dugu beraz eta horretarako argi izan behar dugu politika bizitzaren eremu guztietan artikulatzen dela. Beraz, zeharlerrotasun erradikal bat martxan jarri behar dugu. Hau da, estruktura estankoak apurtu behar ditugu eta sail ezberdinen artean proiektu konpartituak eraiki eta kudeatu behar ditugu. Beharizan nabarmen eta erronka handi hauen aurrean, gure herriak, dinamika eraldatzaile eta partekatu bat abiatu behar du, erakundeetatik ahalegin eta konpromiso hori aitortuz, proposamenak eta aldarrikapenak jasoz, eta topaketa eta elkarrizketa guneak bultzatu eta indartuz.

Horregatik guztiagatik, Amasa-Villabonako Udalak honako hau erabaki du:

- Otsailean sortu berria den "Berdintasunean Ados!" mahai irekiari erabakimen osoa aitortzea etorkizunean udalak garatuko duen berdintasun politikak edota politika feminista definitzeko eta erabakitzeko. Horrela, udalerriak beste urrats bat emango du gobernantza eredu parte hartzaile eta demokratiko bat garatzeko garaian.
- "Berdintasunean Ados!" mahai irekian erabakitzen diren ekimen, kanpaina, lanketa edo bestelakoak aurrera eramateko konpromiso irmoa hartzea.
- Aurtengo martxoaren 8aren bueltan Aiztondoko Mugimendu Feministak herrian eta bailara osoan antolatu dituen ekimen eta dinamikak babestea, eta herritarrei parte hartzeko deia egitea publikoki.
- Aiztondoko Mugimendu Feministak eta bereziki Amasa-Villabonako Lurgatz eta Akain Talde Feministek bidezko eta berdintasunezko gizartea lortzeko orain arte egindako eta egiten jarraitzen duen ezinbesteko ekarpena eta lana aitortzea.